
48 25

DERIBATUTAKO KARTOGRAFIA : MALDAK


Oinarrizko kartografia azalerako lurraldearen behaketa eta neurketa prozesuak abiapuntu hartuta garatzen den kartografia da. Deribatutako kartografia oinarrizko kartografiak ekarritako informazioa gehitzearen eta/edo orokortzearen emaitza da.

Euskal Herriko Datu Espazialen Azpiegituraren barruan, Autonomia Erkidego osorako deribatutako kartografia honetara sar daiteke: Hondo Hipsometrikoa, Orientazioen Mapa, Itzalen Mapa eta Malden Mapa.




Malda desnibelaren (∆Y) eta ibili behar den distantzia horizontalaren (∆X) arteko harremana da, oro har, ehunekotan adierazita, hau da, (∆X)*(∆Y)/100. Lurraldean bertan, magal batean existitzen den desnibelaren (∆Y) kontrol gisa ulertu behar da, koten eta espazioaren aldaketaren bitartez (∆X).


25 metroko gelaxka duen malden raster mapa sortzeko 2012ko Lurraldeko Eredu Digitala abiapuntu hartu da, metro 1en sareko igarotzearekin. Mapa hau sortzeko, 25 m x 25 m gelaxka bakoitzak eta hortik gertuen dauden zortzi gelaxkek definitutako plano baten maldaren gehienezko maila kalkulatzen da.



Bizkaiko malden mapa: bertan adierazi da Butron ibaiaren meandro bati dagokion handitutako zonaldea, itsasoaren ahokaduratik gertu. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.



Raster mapa bat lerrotan eta zutabetan antolatutako gelaxkek (edo pixelek) osatutako mapa bat da. Horietako gelaxka bakoitzak informazio bat aurkeztuko du. Kasu honetan, malda gelaxka zehatz bat da.



Malden mapa 2012 + nibel kurbak + Hidrografia.

Adierazitako gunea Gorliz, Plentzia eta Lemoiz udalerrien zati bati dagokio.

UTM 30N ETRS89 X: 505865 m Y: 4804331 m.

Gune berdeak malda gutxiago dituzten lekuei dagozkie eta gorriak, berriz, malda gehiago dituztenei. Nibel kurbak sartu dira nibel kurbak elkartuagoak daudenean kolore gorria (arrapala gehiago) erabili dela egiaztatzeko.